

## Plangintza hidrologikoaren hirugarren zikloko (2021-2027) parte-hartze publikoaren prozedura

### *Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren Gai Nagusien behin-behineko Eskema (GNbE). GIDA DOKUMENTUA*

## 1- Ekimen-testuingurua: 2000/60/CE Zuzentaraua eta parte-hartze publikoa plangintza hidrologikoaren prozeduran

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2000ko urriaren 23ko 2000/60/CE Zuzentarauak (aurrerantzean UEZ - [Uraren Esparru Zuzentaraua](#)) Uraren politikaren ekintza esparrua ezartzen du.

UEZa lege-erreforma sakon eta berritzailea da uraren kudeaketaren esparruan eta printzipio hauek betetzen ditu: ekosistema urtarren babesa, uraren erabilera jasangarria eta parte-hartze publiko aktiboa. Oinarri horietatik abiatuta, bere xede orokorra ingurune hidrikoa babestea eta hobetzea da, beharrezko ur-baliabideen erabilgarritasuna bermatzea eta uholde edota lehorteek sor ditzaketen kalteak saihestea.

Helburu guzti horiek lortzeko baliabiderik garrantzitsuena plangintza hidrologikoa da, non neurri eta arau-xedapen zehatzak jasotzen diren helburu orokor horiek lortzeko. Testuinguru horretan, Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren [bigarren zikloko Plan Hidrologikoa \(2015-2021\)](#) urtarrilaren 8ko [1/2016 Errege Dekretuaren](#) bitartez onartua izan zen. Gaur egun, Administrazio Hidraulikoek- Kantauriko Konfederazio Hidrografikoak eta Uraren Euskal Agentziak- [Plana berrikusteko prozesu](#) berria hasi dute. Berraztertze hori [2021eko abendua baino lehen](#) amaitu behar da eta jarraian azaltzen diren urratsak jarraituko ditu.



1. irudia. Plangintza hidrologikoaren prozedura.

2021-2027 GNbEren parte-hartze prozedurarako Gida Dokumentua.

Uraren Legearen 35. artikulua eta Plangintza Hidrologikoaren Erreglamenduen 72. artikulutik 75.era bitartekoek plangintza hidrologikoaren prozesuak eta haren berrikuspenak bete beharreko parte-hartze publikoa eragingarri egiteko prozedurak arautzen dituzte.

2021-2027 zikloko Hasierako Dokumentuak behin betikoz onartu eta gero, Gai Nagusien behin-behineko Eskemaren kontsulta publikoa hasi da, Plan Hidrologikoa berrikusteko jarraibide nagusiak zehazten dituen dokumentuarena, hain zuzen ere.

Prozesu horretan, administrazioek parte-hartze aktiboa sustatu behar dute, kontsulta publikoa bermatuz eta plangintza hidrologikoaren prozeduraren erreferentziazko informazioa eskuragarri jarritz; zehazki, arrotako plan hidrologikoen elaborazioari, jarraipenari eta berraztertzeari buruzko informazioa.

## 2- Gida honen xedea

---

Gida honek plangintza hidrologikoaren hirugarren zikloan (2021-2027) [Gai Nagusien behin-behineko Eskemaren \(GNbE\) parte-hartze publikoaren prozeduraren urratsak](#) ezartzea du xede.

## 3- Plangintza hidrologikoaren hirugarren zikloko (2021-2027) GNbE

---

Plangintzaren hirugarren zikloko (2021-2027) uraren kudeaketaren arloko Gai Nagusien behin-behineko Eskemak demarkazio hidrografikoko [arazo nagusiak eta horien konponbiderako aukerak identifikatzea](#) du helburu, baita [Plan Hidrologikoaren proiektua garatzeko gidalerroak zehaztea](#) ere.

GNbE gida honetako 4.3.1. atalean aipaturiko administrazio hidraulikoen web-orrietan dago eskuragarri. Dokumentu hori, informazio eta parte-hartze publikoko prozesuen ondoren, eta hura onartzean, Gai Nagusien behin betiko Eskeman bilakatuko da.

GNbEk [memoria bat](#) eta [eranskin bat](#) ditu. [Memorian](#) hainbat alderdi jasotzen dira, hala nola dokumentuaren helburuak eta hura egiteko kontuan hartu beharreko elementuak, demarkazioko gai nagusien laburpena, plangintzaren helburuak lortzeko arriskutsuak izan daitezkeen presio, inpaktu, sektore eta jardueren aipamena eta, azkenik, [Plana berrikusteko gidalerroak edo jarraibideak](#). Gidalerro horiek, dokumentuaren funtsezko elementuak dira; izan ere, demarkazioko problematiken eta horien alternatiben azterketa globalaren ondorioz lortu dira.

I [Eranskinak](#) demarkazioko [gai nagusi bakoitzaren fitxak](#) batzen ditu. Hona hemen fitxa horien edukia:

- *A. Arazoaren deskribapena eta kokapena:* Gai nagusiaren deskribapena, denboran izan duen bilakaera eta lortzen ez diren plangintzaren helburuak jasotzen ditu.

- *B. Arazoa sortzen duten presioen izaera eta jatorria:* Arazoa eragiten duten presioen deskribapena jasotzen da, baita arazo horri lotutako sektoreena eta jarduerena ere.
- *C. Hautabideen planteamendua:* Arazoaren aurrean jarduteko hautabideen planteamendua jasotzen da, baita ordezkotako irtenbideek eragindako sektore eta jarduerak ere.
- *D. Etorkizuneko Planari begira har daitezkeen erabakiak:* Plan Hidrologikoaren berrikuspenean gai nagusi bakoitza kudeatzeko funtsezko faktoreak planteatzen dira, arazoaren analisietan eta jarduteko leudekeen hautabideetan oinarrituta.
- *E. Erlazionatutako gaiak:* Elkarrekintza zuzenagoa duten beste gai nagusi batzuen fitxen zenbakia azaltzen da.

Eskuragarri dagoen erreferentziarako informazioaren eta egindako analisien arabera, honako hauek dira plangintzaren hirugarren ziklo honetan kontuan hartu beharreko gai nagusiak:

1. taula GNEren Gai Nagusiak. Plangintza Hidrologikoaren hirugarren zikloa (2021-2027).


Taldea	Hirugarren zikloko GNEren gai nagusien proposamena
I. Ingurumen-helburuak betetzea	1 Hiritako isurketek eragindako kutsadura
	2 Industrietako isurketek eragindako kutsadura puntuala
	3 Kutsadura lausoa
	4 Beste kutsadura-iturri batzuk
	5 Aldaketa morfologikoak
	6 Emari ekologikoen erregimena ezartzea
	7 Espezie aloktonoak eta inbasoreak
	8 Eremu babestuetako habitatak eta espezieak babestea
II. Eskarien hornidura eta erabilera arrazionalizatzea	9 Hiri- hornidura eta barreiatutako biztanleriaren ur-hornidura
	10 Klima-aldaketaren aurreikuspenetara egokitzea
III. Muturreko fenomenoaren aurrean izan beharreko segurtasuna	11 Beste erabilera batzuk
	12 Uholdeak
IV. Ezagutza eta gobernantza	13 Lehortekak
	14 Beste fenomeno kaltegarri batzuk
	15 Administrazioen arteko koordinazioa
	16 Kostuak berreskuratzea eta finantzaketa
	17 Ezagutza hobetzea
	18 Sentsibilizazioa, prestakuntza eta parte-hartze publikoa

Horietatik, demarkazioan garrantzi handiena duten gaiak **hiri- eta industria-isurketak**, **beste kutsadura-iturri batzuk**, **alterazio morfologikoak**, sistema jakin batzuetako **eskarien asebetetzea** eta **uholde arriskua** dira, **klima-aldaketara egokitzearekin** lotutako zeharkako gaia ahaztu gabe.

## 4- GNEren parte-hartze publikoaren prozedura

2021-2027 GNEren parte-hartze prozedurarako Gida Dokumentua.

GNbE herritarren parte-hartzeari irekitako dokumentua da, eta, Uraren Esparru Zuzentarauaren 14. artikuluari jarraituz, parte-hartze publikoaren hiru maila nagusiak bete behar ditu: informazioa eskaini, kontsulta publikoa egin eta herritarren parte-hartze aktiboa sustatu.



2. irudia. Parte-hartzearen faseak eta bideak.

Kontsulta prozesuak zera esan nahi du: publikoak aukera du administrazioek eginiko proposamen eta planen inguruko ekarpenak helarazteko. Parte-hartze aktiboak, berriz, zera esan nahi du: interesa duten eragileek plangintzaren prozeduran aktiboki lan egiten dute, arazoez hausnartuz eta horien konponbideak aurkitzen lagunduz.

#### 4.1- Informazioaren eskaintza

Parte-hartze prozesuaren lehen maila hau informazioa helarazteko baliabide ororen eskaintzan datza, dibulgazio-txosten, web-orri, informazio-bulego edo abarren bidez. Administrazio Hidraulikoen web-orrietan eskuragarri dago plangintza hidrologikoari buruzko informazio guztia, eta, bereziki, GNbEri dagokiona:

##### Administrazio Hidraulikoen webguneak (GNbEren estekak)

Uraren Euskal Agentzia:

<https://www.uragentzia.euskadi.eus/plangintza-hirugarren-zikloaren-gai-nagusien-eskema-2019/u81-00033362/eu/>

Kantauriko Konfederazio Hidrografikoa:

<https://www.chcantabrico.es/eu/planes-hidrologicos-2021-2027/dhc-oriental/esquema-provisional-de-temas-importantes1>

#### 4.2- Kontsulta publikoa

EHAAn 2019ko irailaren 27an argitaratutako Uraren Euskal Agentziaren zuzendari nagusiaren Ebazpenaren bitartez kontsulta publikora zabaltzen da Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren GNbE, demarkazioaren [barne arroetako eremuari](#) dagokiona. Kontsulta publikoak sei hilabeteko epea izango du, [2019ko irailaren 28tik 2020ko martxoaren 27ra](#). Bestalde, demarkazioaren [erkidego arteko arroen eremuan](#), kontsulta publikoaren prozesua [2020ko urtarrilaren 25etik uztailaren 24ra](#) burutuko da, Uraren Zuzendaritza Nagusiak 2020ko urtarrilaren 24ko EAOean argitaratutako iragarkiaren arabera.

Dokumentuaren inguruan iradokizunak, ekarpenak edota alegazioak egin nahi dituzten pertsona eta erakunde guztiek idatziak aurkeztu ditzakete Administrazio Hidraulikoen egoitzetan edota 4.3.1. puntuan azaldutako bide elektronikoen bidez.

2. taula *Administrazio Hidraulikoen bulegoak.*

URAREN EUSKAL AGENTZIA		
Egoitza Nagusia	Ekialdeko Kantaurialdeko Arroen Bulegoa	Mendebaldeko Kantaurialdeko Arroen Bulegoa
Orio Kalea, 1-3 01010 Vitoria-Gasteiz Telefonoa: 945 011 700 Faxa: 945 011 701	Intxaurren Kalea, 70-1. solairua 20015 Donostia-San Sebastián Telefonoa: 945 011 700 Faxa: 943 024 801	Urkixo Zumarkalea, 36-7. solairua 48011 Bilbo Telefonoa: 945 011 700 Faxa: 944 033 801
KANTAUARIKO KONFEDERAZIO HIDROGRAFIKOA		
Oviedoko Egoitza Nagusia	Plangintza Hidrologikoaren Bulegoa	
Plaza de España, 2 33071 Oviedo Telefonoa: 985 968 400 Faxa: 985 968 405	Asturias kalea, 8 33071 Oviedo Telefonoa: 985 965 910 Faxa: 985 965 906	
Bizkaia eta Arabako Lurralde-Bulegoa	Gipuzkoa eta Nafarroarako Lurralde-Bulegoa	
Gran Vía, 57 48011 Bilbo Telefonoa: 944 411 700 Faxa: 944 415 019	Paseo de Errotaburu, 1 20018 Donostia Telefonoa: 943 223 799 Faxa: 943 311 964	

### 4.3- Parte-hartze aktiboa

Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren GNbE-ko parte-hartze aktiboaren prozedura bi lan-modu osagarritan egituratu dugu. Alde batetik, tresna elektronikoak web-orrien bidez; eta bestetik, aurrez-aurreko lan-tailerrak. Prozedura hau diseinatzeko orduan kontuan izan dugu aurretiko plangintza zikloetako parte-hartze prozeduratan ikasitakoa.

#### 4.3.1- Tresna elektronikoak.

GNbE eta parte-hartze aktiboari buruzko dokumentuak eskuragarri daude formatu digitalean Kantauriko konfederazio Hidrografikoren (<http://www.chcantabrico.es>) eta Uraren Euskal Agentziaren ([www.uragentzia.eus](http://www.uragentzia.eus)) web-orrietan.

Halaber, interesa duten eragileek eta herritarrek, oro har, tresna elektroniko hauen bidez egoki irizitako iradokizunak eta ekarpenak helaraz ditzakete:

*2021-2027 GNbEren parte-hartze prozedurarako Gida Dokumentua.*

### Uraren Euskal Agentzia:

**Posta elektronikoa:**  
ParticipacionPlanHidrologico@uragentzia.eus

**Birtualki eztabaidatzeko  
gunea**  
www.irekia.eus

**Twitter:**  
@uraEJGV

### Kantauriko Konfederazio Hidrografikoa:

**Posta elektronikoa**  
participacion.planificacion@hcantabrico.es

**Birtualki eztabaidatzeko gunea**  
<https://www.hcantabrico.es/planes-hidrologicos-2021-2027/dhc-oriental/esquema-provisional-de-temas-importantes1>

## 4.3.2- Tailerrak

### Tailer kopurua, egutegia eta tokiak.

Parte-hartze prozedurak **lau tailer tematiko** aurreikusten ditu, eta bertan Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoko hirugarren plangintza zikloan (2021-2027) identifikatutako gai nagusienak lantzea da helburua:



3. irudia. GNbEren inguruko tailer tematikoak.

Taula honetan, GNbEn identifikatutako gai nagusien eta tailerretako gaien arteko korrespondentzia agertzen da:

3. taula GNbEn identifikatutako gai nagusien eta tailerretako gaien arteko korrespondentzia.

Lantaldeetako gaiak	2021-2027ko GNbEan identifikatutako gai nagusiak
Kutsadura	1. gaia. Hirietako isurketek eragindako kutsadura 2. gaia. Industrietako isurketek eragindako kutsadura puntuala 3. gaia. Kutsadura lausoa 4. gaia. Beste kutsadura-iturri batzuk
Ingurumena lehengoratzeta eta hobetzea	5. gaia. Aldaketa morfologikoak 6. gaia. Emari ekologikoen erregimena ezartzea 7. gaia. Espezie aloktonoak eta inbasoreak 8. gaia. Eremu babestuetako habitatak eta espezieak babestea
Ur-horniduraren bermea eta erabileraren arrazionaltasuna	9. gaia. Hiri-hornidura eta barreiatutako biztanleriaren ur-hornidura 11. gaia. Beste erabilera batzuk 13. gaia. Lehortekak 16. gaia. Kostuak berreskuratzea eta finantzaketa
Uholde-arriskua	12. gaia. Uholdeak
Zeharkako gaiak, aurreikusitako tailer tematiko guztietan landu ahal izango direnak	10. gaia. Klima-aldaketaren aurreikuspenetara egokitzea 15. gaia. Administrazioen arteko koordinazioa 17. gaia. Ezagutza hobetzea 18. gaia. Sentsibilizazioa, prestakuntza eta parte-hartze publikoa

2021-2027 GNbEren parte-hartze prozedurarako Gida Dokumentua.

Jarraian, tailerrak egiteko aurreikusitako eguna, ordua eta lekua azaltzen dira:

4. taula Tailerrak egiteko aurreikusitako eguna, ordua eta lekua.

Datak	Tailerren gaiak	Lekua	Ordutegia
Martxoaren 3an	Ingurumena lehengoratzea eta hobetzea	Centro Kursaal Elkargunea (A10) Zurriola Etorb., 1 20002 Donostia-San Sebastián	17:00-20:00
Martxoaren 4an	Uholde-arriskua	Centro Kursaal Elkargunea (A10) Zurriola Etorb., 1 20002 Donostia-San Sebastián	17:00-20:00
Martxoaren 11n	Kutsadura	Bizkaia Aretoa UPV/EHU (Sala Arriaga) Abandoibarra Etorb., 3 48009 Bilbo	17:00-20:00
Martxoaren 12an	Ur-horniduraren bermea eta erabileraren arrazionaltasuna	Bizkaia Aretoa UPV/EHU (Sala Arriaga) Abandoibarra Etorb., 3 48009 Bilbo	17:00-20:00

#### Tailerretako dinamika:

Tailer tematikoak gidoi honen arabera garatuko dira:

- [Ongietorria.](#)
- [GNbEren aurkezpena eta testuingurua.](#)
- [Eztabaidatu beharreko gai nagusien diagnostikoa edo problematika:](#) interesa duten eragile nagusiek arazoaren inguruan duten iritzia azaldu dezakete, eta horrela, ondorengo eztabaidarako abiapuntu interesgarria emango dute.
- [Parte-hartze publikoko prozesuaren aurkezpena.](#)
- [Dinamika parte-hartzailea:](#) eztabaida-talde bat osatuko da, eztabaida-gai bakoitzerako hobekuntza-proposamenak zehazteko helburuarekin. Ondoren, informazioa komunean jarriko da. Azkenik, bertaraten direnek parte-hartze prozesua ebaluatzeko galdetegi bat bete ahaliko dute.
- [Amaiera/agurra.](#)

Tailerretako lan-materiala [GNbEren dokumentua](#) bera da, zehazki, kasu bakoitzean dagozkion [gai garrantzitsuen fitxak](#). Tailerren aurreikusitako iraupena, gutxi gorabehera, 3 ordukoa izango da.

Ondoren, tailer bakoitzaren [laburpena](#) egingo da, bai eta [amaierako txosten](#) bat ere, emaitzekin eta parte-hartze prozesuaren balorazioarekin. Dokumentazio hori Administrazio Hidraulikoen webguneetan jarriko da herritarren eskura.